

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jexux Eizagirre Portillo

*Zumaja,
Gipuzkoa
(1948)*

Aurkibidea



Biografia



San Telmo kaleko
"Romanenekoa" etxean jaioa.
Umetan txoritara eta
olagarrotara joaten zen
lagunekin. Ubillos jauregian
kokatutako mesedetako
eskolara joan zen 10 urtera
arte. Ondoren, guraso
elkarteak sortutako
akademian ibili zen;
herritarrak ziren irakasleak.
15 urterekin Zestoako
'Guztiok Bat' tailerrean sartu
zen. 16 urterekin luistarren
zuzendaritzako kide izan zen
eta ondo gogoan ditu orduko
3 gertakizun: Julio Beobideri
omenaldia, 'Alkar Izketa'
boletina sortu zutenekoa eta
Zumarragako Orbegozo
enpresak Zumaian fabrika
ipini nahi izan zueneko
istiluak. Zumaian indar
handia izan zuen 'Herri
Gaztedi' gazte mugimenduan
parte hartu zuen. Legazpiko
Patricio Echeverria enpresan
ibili zen lanean eta grebarako
dei eginez panfleto bat
idazteagatik 2 hilabete pasa
zituen espetxean. Hernanira
ezkondua, AEK-ko irakasle ibili
zen, baita Dobera Euskara
Elkarteko zuzendaritzan ere,
'Kronika' egunkaria sortuz.
Literaturazalea, hainbat ipuin
argitaratu ditu. Langile
mugimenduekin
konprometitua eta politikan
ere ibilia, gaur egun
Zumaiko pentsiodunekin
batera dihardu borrokan.

Zintak

ZUM-116

- **Proiektua:** Zumaiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odria, Haizea
- **Data:** 2022-01-24
- **Iraupena:** 69 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Odria, Haizea

Pasarteak

1. Romanenekuak

- **Erref:** ZUM-116/002
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:01:05. **Bukatu:** 00:02:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:

San Telmo kalean jaio zen Jexux, "Calle Pattarras" deitzen zitzaion orduan. Aitona Roman deitzen zen eta beraiek "Romanenekoak" ziren. Umetan hildako osaba baten omenez jarri zioten Jexux Mari izena. 9 anai-arreba ziren eta berari "Roman zaharra" deitzen zioten.

2. "Txisteen etxea"

- **Erref:** ZUM-116/003
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:02:57. **Bukatu:** 00:04:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

"Txisteen etxea" zen beraiena. Komiki asko zeuzkaten umetan: Jabato, Carpanta... Igandetako paga horretan gastatzen zuten. 9 anai-arreba zirenez komiki asko zeuzkaten. Lagunekin trukean ere ibiltzen ziren. Literaturarako zaletasuna hortik datorkie familiako kide batzuei.

3. San Telmo, arrantzaleen kalea

- **Erref:** ZUM-116/004
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:06:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

San Telmo kalean bazen emakume bat Eulali izenekoa. Behin Eulalik honela esan omen zion Jexuxen amari: "Padre decir: Eulali, mañana casar con este hombre". Eta hurrengo egunean ezkondu zen Eulali 16 urterekin, aitik bezperan aurkeztutako gizonarekin. Gizona barku bateko nagusia izaki, Eulalik barkua kargatzen jardun zuen ezkonduetako egunean bertan, marinelekin batean. San Telmo kalea arrantzaleen kalea zen.

4. Erreklamoan txoriak harrapatzen

- **Erref:** ZUM-116/005
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:06:13. **Bukatu:** 00:08:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:

Umetan "trenadioska" jolasten zuten. Olagarrotara eta txoritarara ere joaten ziren. Erreklamo (txoriak harrapatzeko modua) nola izaten zen azaltzen du: zuhaixka bat moztu (arteak izan ohi zen), adar puntan brankiloa ipini, likaz igurtzi, kaiolak arbola azpian jarri... Eta han egoten ziren itxoiten, kaiolako txoriak beste txoriren bat erakarri eta likan itsatsita geratu arte. Brankiloa nolakoa zen azaltzen du.

5. Fraideen irakaskuntza "metodoa"

- **Erref:** ZUM-116/006
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:08:38. **Bukatu:** 00:09:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Eskola txikian ibili ondoren, mesedeetako fraideekin ikasi zuen, Ubillos jauregian. Haien metodoa esaldi batean laburbiltzen zen: "la letra con sangre entra". Zigortzeko belaunikatu, burua lurraren kontra jarri eta makilarekin ipurdian astintzen zituzten. Batxilerra arte ibili ziren hor.

6. 'Endañeta' harri-jasotzailearen lehen saiakerak

- **Erref:** ZUM-116/007
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:09:51. **Bukatu:** 00:11:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Mesedeetako fraideetan zebiltzala, jolas-ordua Beheko plazan egiten zuten. Eskola nazionalerako mutilak hortik pasatzen ziren. Haietako bat 'Endañeta' harri-jasotzaile ezaguna zen. Harri biribil bat egoten zen han eta 'Endañeta'k ezin hura altxatu gabe egon!

7. Guraso elkarteak sortutako akademia

- **Erref:** ZUM-116/008
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:11:13. **Bukatu:** 00:14:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Mesedeetako fraideekin zebiltzala, mutikoei ematen zieten tratua ikusita, orduko guraso elkarteak akademia bat sortu zuen. Irakasleak herrikoak ziren: Iñaki Sorazu “Zueltzu”, Olaizola (“Xuxarrito”), Mari Pilar Beobide eta beste. Ikaskideen izenak ere esaten ditu. Tomas Mendizabal eta Manolito Urbietta aipatzen ditu; haiekin joaten zen erreklamoan. Eskolako pare bat anekdota barregarri kontatzen ditu.

8. Pío Barojaren eta Zumaiaren arteko harremana

- **Erref:** ZUM-116/009
- **Iraupena:** 0:05:27. **Hasi:** 00:14:53. **Bukatu:** 00:20:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Idaztea
- Lanbideak » Artistak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Orduko guraso elkarteak akademia bat sortu zuen eta irakasleak herrikoak ziren. Baina irakasgai bat frankismoak ezarritakoa zen, “Formación del espíritu nacional” eta falangista batek ematen zuen. Erabiltzen zuten testua “Ángelus” zen, Pío Barojarena. Hasiera oraindik gogoan du. Jexuxen iritziz, zumaiarrei gertatutako naufragio batean oinarritu zen Baroja. Honi buruz daukan teoria azaltzen du.

9. 1960an itsasoak 6 mutil irentsi zituen

- **Erref:** ZUM-116/010
- **Iraupena:** 0:07:10. **Hasi:** 00:20:20. **Bukatu:** 00:27:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Jexuxen bi lagun, Tomas Mendizabal eta Manolito Urbietta, eskola

profesionalera joan ziren. 1960ko azaroaren 15ean ezbehar handia gertatu zen Zumaian. Olatuek 7 mutil eraman zituzten paol aldean, bakarra atera ahal izan zuten bizirik, Rudi Holke arraunlariak erreskatatuta. Gogoan du nola eskolan batu zituzten gero, zein falta zen jakiteko. Tomas eta Manolito "itsasoak tragatu zituen". Egun horretako xehetasunak ematen ditu Jexuxek.

10. "El tren obrero" hartuta lanera

- **Erref:** ZUM-116/011
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:27:30. **Bukatu:** 00:28:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Batxilergoa bukatuta, 15 urterekin Zestoako 'Guztiok Bat' lantegian hasi zen lanean, Victoriano Zubizarretarekin batera. Gainontzeko langileekin batera "El tren obrero" hartzen zuten mutiko bakarrak ziren orduan.

11. Julio Beobideri omenaldia

- **Erref:** ZUM-116/012
- **Iraupena:** 0:05:24. **Hasi:** 00:28:27. **Bukatu:** 00:33:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

16 urte ingururekin luistarretan sartu zen, batzordean. Xegundo Manterola presidentea zela uste du eta Joanito Dorronsoro, apaiza zela, elizak jarritako aholkulari. Batzordean zegoela, hiru gertakizun aipagarri ditu gogoan. Julio Beobide eskultorearen omenaldiaz dihardu pasarte honetan.

12. Luistarren 'Alkar-Izketa' buletina

- **Erref:** ZUM-116/013
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:33:51. **Bukatu:** 00:36:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Euskara » Euskararen historia
- Politika » Jarrera politikoak » Komunistak
- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Luistarren batzordean zegoela, hiru gertakizun aipagarri ditu gogoan. Buletinaren argitaratzeaz dihardu pasarte honetan. Joanito Dorronsorok proposatuta erabaki zuten "Alkar-izketa" izeneko buletin bat ateratzea. Gehienek gazteleraz idazten zuten: Jesus Mari Larrazabal 'Tarzan', Josu Iñaki Alvarez Yeregi, Rufo Bidasoro... Gutxi batzuk euskaraz: Joanito Dorronsoro, Aristegi, Pello Etxabe eta Abelin Linazisoro. Luis Daniel Ispizuaren idatziak komunismoa goraipatzen zuen esaldi bat zeukan eta herrian sekulako zalaparta sortu zen. Orduan oso gutxi ziren euskaraz idazteko gai zirenak.

13. Orbegozo lantegiaren polemika

- **Erref:** ZUM-116/014
- **Iraupena:** 0:07:26. **Hasi:** 00:36:34. **Bukatu:** 00:44:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Zumarragako Orbegozo lantegiak Zumaian lantegia jarri nahi izan zuen, elizaren sail batean. Teodoro Bikuña zegoen orduan parroko eta gazteen esku utzi zuen erabakia. Luistarretan zegoen Jexux (18 urte inguru izango zituen) eta harremana zuen langile mugimenduekin. Klandestinoki mugitzen zen asanblada eta Zumarragako ordezkari batzuen bitartez, Orbegozo leku onean uzten ez zuen informazioa jaso zuen. Orbegozori lanpostuen berri jakiteko idatzi zieten orduan, eta hark bertan behera utzi zuen proposamena. Herritar asko haserretu ziren, lanpostu asko galdu zirelakoan. Gaur egun Ayra-Durex lantegia dago leku horretan.

14. Herri Gaztedi

- **Erref:** ZUM-116/015
- **Iraupena:** 0:04:32. **Hasi:** 00:44:00. **Bukatu:** 00:48:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Euskal gatazka
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Politika » Jarrera politikoak » Komunistak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Joanito Dorronsorok sortu zuen Herri Gaztedi gazte mugimendua Zumaian. Astero bilerak egiten zituzten. Gipuzkoa mailan Urretxun biltzen ziren. Langile borrokaren aldeko ekintzaileak ziren. Marxismoa eta kristautasuna uztartzen saiatzen ziren. Zumaiaiko gazteria gehiena Herri Gaztedik mugitzen zuen.

Burgosko Prozesuaren kontrako borrokan Herri Gaztedik protagonismo handia izan zuen. Orduan Jexux ez zegoen Zumaian, Ferrolen soldaduska egiten baizik. Gainbeheraren arrazoiak azaltzen ditu: elizak ez zuen onartzen Herri Gaztedik hartu zuen norabidea.

15. Panfleto bat idazteagatik atxilotuta

- **Erref:** ZUM-116/016
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:48:32. **Bukatu:** 00:50:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Goierriko lantegiak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Herri Gaztedi mugimendua utzi eta urte gutxira Legazpiko Patricio Echeverria lantegian hasi zen lanean, forjan. Behin panfleto bat idatzi zuen, greba baterako dei eginez. 3 egunez atxilotuta eduki zuten; gero bi hilabete egin zituen espetxean, zigor handiagoa jarri zioten arren. Lantegitik lehen kaleratutakoa izan zen. Panfletoak nola idatzi behar diren, epitetoak lehenetsita.

16. Politikako urteak

- **Erref:** ZUM-116/017
- **Iraupena:** 0:04:17. **Hasi:** 00:50:45. **Bukatu:** 00:55:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Politika
- Politika » Jarrera politikoak » Komunistak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

ORT alderdian aritu zen liberatu, Bilbon. Arriaga Antzokian mitina emandakoa da, jende asko joaten zen. Baina hauteskundeetan ez zuten ordezkariak atera. ORT desegin eta gero, euskaldun batzuek "Comité Central"-aren (PCE) azken batzarrera joan ziren Madrilera. Asanblada horretan autodeterminazio eskubidea planteatu zuten eta iskanbila handia sortu zen.

17. Dobera euskara elkarteak eta idatzitako ipuinak

- **Erref:** ZUM-116/018
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:55:02. **Bukatu:** 00:58:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Hernanira ezkontuta zegoen eta bertako AEK-n eta Dobera euskara elkartean hasi zen lanean. 'Kronika' egunkaria argitaratzen hasi ziren. Lehen kazetariak denak bertsolariak ziren. Estiloa aztertzeke eskatu zioten Jexuxi. IVAPen beka bat lortuta zeukan eta testuak aztertzen bazeukan esperientzia. Idatzien erritmoaz liburu bat atera zuen. Dobera elkartearen bitartez, munduko istorioak biltzen dituzten ipuin batzuk argitaratu zituen. Pandemia garaian (2020), "Bizitzeko irrika" liburua argitaratu zuen bere kasa.

18. Amets Arzallusen bertso batzuk

- **Erref:** ZUM-116/020
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:59:23. **Bukatu:** 01:00:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Gaur egungo egoera islatzen duten Amets Arzallusen bertso batzuk.

19. Munduko ipuinak

- **Erref:** ZUM-116/022
- **Iraupena:** 0:06:07. **Hasi:** 01:00:16. **Bukatu:** 01:06:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
- 101L » Kultur aniztasuna » Kultur aniztasunaz esperientzia pertsonala
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Dobera elkartearen bitartez, munduko istorioak biltzen dituzten ipuin batzuk argitaratu zituen. Hauetako istorio batzuk nondik jaso zituen kontatzen du: Saharakoa ("Chertat eta lehoia"), Armeniakoa ("Mozoloaren bidea") eta Senegalgoa ("Txori txikia eta krokodiloa"). Ikastetxeetara joaten ziren bi hizkuntzatan kontatzera.

20. Luistarretan sortutako euskarazko antzerkia

- **Erref:** ZUM-116/024
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 01:06:30. **Bukatu:** 01:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Luistarretan zebiltzala, euskarazko antzerki bat egitea pentsatu zuten. "Ertzaina etxean" izena ipini zioten. Aktoreak Jexux bera, Nati Lopetegi "Santiyo" eta Itziar Senosiain ziren; zuzendaria, berriz, Abelin Linazisoro, Estreinatuta gabe geratu zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com